

2025eko abendua



Bi punturen ondoren: xehez ala larriz

Bi puntuek erlazio kataforiko bat iragartzen dute; alegia, gero datorren elementu bati egiten diote erreferentzia, edo/eta esaldia osatzera datorren osagaiaren seinale dira nolabait. Aurreko hitzaren segidan, tartean hutsunerik utzi gabe, eta ondoren hutsunea utziz idazten dira. Askoren ustez, ordea, bi puntuen ondoren larriz idatzi behar da. Salbuespenak salbuespen, uste okerra da hori. Bi puntuen ondoren xehez idatzi behar da, kontrako arrazoirik ez bada behintzat.

Pasa gaitezen, bada, Euskaltzaindiak jasota duen araua urratsez urrats azaltzera.

XEHEZ:

- **Urtaroak, hilabeteak eta astegunak aipatzean:**

Hauek dira lau urtaroak: udaberria, uda, udazkena eta negua.

Hona hemen hilabeteak: urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza...

Eguna: abenduak 12, larunbata

Ordua: 12:00

Tokia: Iruñeko (leku izena, beti larriz)) Labrit pilotalekua

- **Adibide gisa edo, ejenpluak jarri nahi direnean:**

Bokalez hasten diren zenbakiak *h* letrarekin idazten dira euskaraz, ehun izan ezik: hiru, hamar, hamaika, hamabi, hoge...

- **Esaldi oso baten zati edo aurreko zatiaren osagarri bada:**

Egun hauetan hotz handia egiten du: horra denon kexa.

Hirugarren proba dator orain: zailena eta gogorrena.

- **Zerrendetan, esaldi osoak ez direnean (punturik gabe bukaeran):**

Hauek dira alorrez alorreko euskalgintzako profesionalak:

- irakasleak (hezkuntza orokorrekoak nahiz euskaltegietakoak)
- kazetariak
- itzultzaileak, idazleak eta argitaratzaileak
- administrazioako langileak

- **Katafora moduren bat erabiltzen denean (erakuslea, izenordaina...):**

Telebistak ondorio hau ekarri du: jendeak uste du bertsotan egiten dakien bakarra bertsolaria dela.

Oso gauza argia esango dut: gure lurraldean ez dago ia nekazaritzarik.

LARRIZ:

- **Gutunetan, hasierako agurraren ondoren:**

Kaixo, Ane: Jaso nuen otsailaren 6ko zure gutuna...

Zuzendari hori: Mezu honen bidez jakinarazi nahi dizut...

- **Norbaitek esana hitzez hitz jasotzen denean:**

Galdera hau egin zidan emakumeak: "Non dago hondartza?".

Platonek zera esan zuen: "Batzuek diote Musak direla bederatzi".

Ane Urrutia: "Sinestezina iruditzen zait partida hau galdu izana".

- **Bi punturen ondoren izen bereziak edo siglak aipatzen direnean:**

Euskal Herriko herrialdeak zazpi dira: Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea, Lapurdi, Zuberoa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba.

Bi irakasgai irakasten ditu: Fisika eta Matematika.

Iruñera joan aurretik, herrian bertan egin nituen nire lehen ikasketak: HH, LH eta DBH hain zuzen ere.

- **Zerrendakoak esaldi osoak direnean:**

Datorren astearteko bilerako aztergaiak:

- Aurreko bileraren agiria irakurri eta, ongi irudituz gero, onartzea.
- Hurrengo jardunaldiko programaren xehetasunak aztertzea.
- Norberak dakartzan proposamenak aurkeztea.



Ohiko erdarakadak



✗ **Gaizki aurkitzen da.**

✓ **Gaizki dago.**



✗ **Guggenheim museoa Bilbon aurkitzen da.**

✓ **Guggenheim museoa Bilbon dago.**



✗ **Katu bat aurkitzen da teilatuan.**

✓ **Katu bat dago teilatuan.**

*aurkitzen da

Zenbaitetan, **aurkitu** aditza erabil genezake **egon** aditzaren ordezt, baina, ez da komeni gehiegikeriaz erabiltzea. Euskaltzaindiak hobesten du **egon** aditza erabiltzea.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!

Contacto / Ukipena

Harremanetarako / Contacto

Ukipena ≠ Harremanetarako

Zain dezagun euskara!